



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko maiatzaren 7a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren asmoei buruzkoa, “Frontera Energy Corporation SL” enpresari hidrokarburoen ikerketarako baimenak emateko errege dekretuei dagokienez, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (2. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak historia kliniko informatizatuen funtzionamenduarekin lotuta detektatutako arazoei buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (3. or.).
- Galdera, 2012an eszedentziagatiko laguntzak jasotzeko baldintza bete arren laguntza horiek jaso ez zituzten familientzako konponbideari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (3. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Kutxa Fundazioak baliabide ekonomikoak jartzen dituen bi mila lagunentzako aisialdi- eta jolas-bidaiak finantzatzeko, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (4. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera aztertze eta biktima horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeko lan-taldearen txostena. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsia (5. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren asmoei buruzkoa, “Frontera Energy Corporation SL” enpresari hidrokarbuoen ikerketarako baimenak emateko errege dekretuei dagokienez.**VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren asmoei buruzkoa, “Frontera Energy Corporation SL” enpresari hidrokarbuoen ikerketarako baimenak emateko errege dekretuei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ministroen Kontseiluak bi errege dekretu onetsi ditu, zeinen bidez baimena ematen zaion “Frontera Energy Corporation, S.L.” enpresari hidrokarbuoak ikertzeko, zehatzago esateko, “Aquiles” proiektua gauzatzeko, zeinak eragina baitu Nafarroako zenbait herritan (Fustiñana, Ribaforada, Buñuel, Cortes, Cabanillas eta Bardea), bai eta Aragoiko beste batzuetan ere. Hori guztia dela-eta, eta kontuan hartuta Parlamentu honek duela gutxi onetsi duela mozio bat, zeinaren bidez Nafarroa frackingik gabeko lurralde deklaritzen baita, ukitutako udaleriretan gertatzen ari den bezala, hauxe jakin nahi dut:

- Zer egingen du Nafarroako Gobernuak Parlamentu honen gehiengoaren eta Erriberako herrien eta herritarren gehiengoaren borondatea betetzeko eta Espainiako Gobernuari aipatu errege dekretua indargabetu dezan exijitzeko?

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Osasun Departamentuak historia kliniko informatizatuen funtzionamenduarekin lotuta detektatutako arazoei buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Osasun Departamentuak historia kliniko informatizatuen funtzionamenduarekin lotuta detektatutako arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun arloko profesionalak kexu agertu dira beren pazienteen historia klinikorako sarbidearen arazoak direla-eta. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Zein arazo detektatu ditu Osasun Departamentuak historia kliniko informatizatuen funtzionamenduarekin lotuta? Zein da arazo horien arrazoa? Zein bitarteko eta ekintza jarri dira abian arazo horiek konpontzeko?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, 2012an eszedentziagatiko laguntzak jasotzeko baldintza bete arren laguntza horiek jaso ez zituzten familientzako konponbideari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2012an eszedentziagatiko laguntzak jasotzeko baldintza bete arren laguntza horiek jaso ez zituzten familientzako konponbideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako kontseilari Alli jaunak maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, apirilaren 30eko bile-ran, deialdi bat onetsi du, seme-alaba adingabeak edota gaixotasunagatik edo istripuagatik arreta zuzena, jarraitua eta etengabea behar duten adineko lehen graduko familiartekoak zaintzeko eszedentzia hartzeagatiko laguntza ekonomikoak emateko. Laguntza eskatu ahalko dute, besteak beste, eszedentzia 2013an hasiko duten langileek, bai eta aurrekontu-kreditu faltagatik 2012an eskatutako laguntza ukatu zitzaizen pertsonek ere, deialdi-

an jasotako premia bereziko egoeretakoren batean egonez gero.

Galdera:

Zer konponbide emanen die Gobernuak 2012an laguntza ukatu zien familiei, orduan eska-

tzen ziren betekizunak betetzen zituzten arren? Nola konpentsatuko die familia horiei administrazioakatsen ondorioz eragindako kaltea?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Kutxa Fundazioak baliabide ekonomikoak jartzen dituen bi mila lagunentzako aisialdi- eta jolas-bidaiak finantzatzeko.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Kutxa Fundazioak baliabide ekonomikoak jartzen dituen bi mila lagunentzako aisialdi- eta jolas-bidaiak finantzatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran Gobernuak lehendakariak ahoz erantzuteko:

Kontuan hartuta Nafarroako Kutxaren Batzorde Kudeatzailea Nafarroako Gobernuak izendatua dela, zergatik jartzen ditu baliabide ekonomikoak Nafarroako Kutxa Fundazioak, bi mila lagunentzako aisialdi- eta jolas-bidaiak finantzatzeko?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera aztertzeke eta biktima horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeko lan-taldearen txostena.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera aztertzeke eta biktima horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeko lan-taldearen txostena, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2013ko apirilaren 16an onetsia.

Iruñean, 2013ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

TXOSTENA

2012ko martxoaren 28an, Socialistas de Navarra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eskatuta, Lehendakaritzako, Administrazio Publiko-eko eta Barneko Batzordeak erabaki zuen lantalde bat osatzea, aztertzeke Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera, eta biktima horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeko.

Lan-taldea 2012ko apirilaren 25ean eratu zen, eta ondoko foru parlamentariak osatu dute: Javier Caballero Martínez jauna, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldekoa; Pedro Rascón Macías jauna, Socialistas de Navarra parlamentu-taldekoa; Víctor Rubio Martínez jauna, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldekoa; Xabier Lasa Gorraiz jauna, Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldekoa; Eloy Villanueva Cruz jauna, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrekoa, eta Txema Mauleón Echeverría jauna, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldekoa, zeinek bere ordezkorekin.

Eratze-bilkuran Pedro Rascón Macías jauna hautatu zuten lan-taldeko lehendakari, eta funtzionamendu arauak eta lan plangintza onetsi ziren.

Lan-taldeari aholku ematen jardun zen Legebiltzarreko legelari Nekane Iriarte Amigot andrea.

Lan-taldean, zeinetara kide titularrak eta, kasuan-kasuan, ordezkarak joan baitira, agerraldia egin dute ondoko elkarte eta entitateetako zenbait kide edo ordezkariak: Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarte, Sartagudako Alargunen Herria Elkarte, Oroimenaren Autobusaren Elkarte, Txinparta Elkarte, Aranzadi Zientzia Elkarte, Trabajos Catastrales de Navarra (Tracasa) enpresa publikoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, bai eta zenbait pertsona ere, norbere izenean etorriak. Orobat entzun dira biktimen senitartekoen lekukotasunak.

Hona lan-taldera etorritako pertsonak: Mirentxu Agirre Aristizabal andrea, Tomás Dorronsoro Tercero jauna, Josefina Lamberto Yoldi andrea, Roberto Rocafort Lozano jauna, Aurea Jaso Bergachorena andrea, Gregorio Sanpedro Zubiría jauna, Jacqueline Urla andrea, Angelita Rodríguez Moretín andrea, Asunción Larreta Ayesa andrea, Ricardo Mula Roca jauna, Arcadio Ibáñez Sanjuán jauna –biktimen senitartekoak horiek denak–; Julio Sesma Martínez jauna eta José Ramón Martínez jauna, Sartagudako Alargunen Herria Elkarteko kideak; Moisés Zalba jauna eta Pablo Echamendi jauna, “TRACASA” enpresaren izenean; Olga Alcega Madurga andrea, Gregorio Armañanzas Ros jauna, Pedro Monente Guerra jauna, Javier Macaya San Martín jauna eta Ángel Urio Garcías jauna, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteko lehendakaria, teknikaria eta kideak; Francisco Echeverría jauna, Aranzadi Zientzia Elkarteko; M^ª Pilar Beaumont Esandi andrea, José Ramón Urtasun Recalde jauna, José Goñi Tirapu jauna, Félix Esparza Fernandez jauna eta Carlos Otxoa Barrikarte jauna, Oroimenaren Autobusaren Elkarteko kideak; Mikel Otazu Iracheta jauna, Venancio Pla Larramendi jauna, Jesús María Urbiola Elosegia jauna, Miguel Celorrio jauna eta Koldo Pla Larra-

mendi jauna, Txinparta Elkarteko kideak; Eloísa Ramírez Vaquero andrea eta Emilio Majuelo Gil jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoko memoria historikoari buruzko lan-taldeko kideak eta César Layana historialaria.

Zenbait bilera egin ostean, lan-taldeak aho batez onetsi ditu txosten honen ondorioak, martxoaren 15ean. Izquierda-Ezkerra, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldetako ordezkariak txosten honen eranskin gisa doazen boto partikularrak mantendu dituzte.

Azkenik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 55. artikuluan ezarritakoarekin bat, lan-taldeak erabaki zuen Legebiltzarreko Mahaiari igortzea bere txostena, izan beharreko ondorioak izan ditzan

Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera aztertzeo eta biktima horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeko lan-taldearen ondorioak

Nafarroako Parlamentuak erabaki zuen lan-talde bat osatzea Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Batzordean, aztertzeo Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera, eta biktima horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeko.

Lan-taldea eratzeko proposamenean lan-taldeen helburu gisa jaso zen “aztertzea ea zein diren gaur egun 1936ko kolpe militarreko eta frankismo-ko biktimen senitartekoen eta haien elkarten beharrianak eta eskariak, eta ekintzak proposatzea haien eskubideak aitortzeo eta zabaltzeo, eta haien eskariei ahal den neurrian erantzutea, bai eta biktimen oroimena eta aintzatespena zainetzea ere”.

Zenbait hilabetez lan egin eta gero –biktimen senitartekoen, elkarten, historialarien eta adituen lekukotasunak entzuten eta dokumentazioa aztertzeko–, hurrengo ondorioetara heldu gara.

LEHENA.- Nafarroako Parlamentuak egiaztatu du neurriak har daitezkeela oraindik ere, 36ko kolpe militarretik eta gerra zibiletik 75 urte baino gehiago iragan ostean, horien ondorioak zuzenezuzenean pairatu zituzten herritarren eskariei behin betiko erantzun bat emateko, eta, bereziki, beren gertuko heriotza pairatu behar izan zutenen eskariei.

Diputatuen Kongresuak 2002an eta Nafarroako Parlamentuak 2003an adierazi zutenek, “inork ez du zilegi, iraganean gertatu zen bezala, indarkeria

erabiltzea bere sinismen politikoak inposatzeko eta herritar guztien askatasunaren eta duintasunaren aurkako erregimen totalitarioak ezartzeko; jokabide horrek, izan ere, gure gizarte demokratiakoaren gaitzespena eta errefusatzeko merezi du”. Nafarroako Parlamentuaren ustez, deklarazio hori indarrean dago gaur egun.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak deklarazio honen bidez mantentzen du beharrezkoa dela ohoratzea eta betiko berreskuratzea arrazoi politiko edo ideologiko batzuegatik edo besteengatik gertatutako injustiziak eta bidegabekeriak pairatu zituzten guztien memoria, bereziki bizitza galdu zutenena eta haien senitartekoena, espetxea, deportazioa, bortxazko lanak edo erbesteak pairatu zutenena.

BIGARRENA.- Bereziki mingarria gertatzen da oraindik ere egotea 36ko biktima batzuk identifikatu gabe lurperatuak izan zirenak eta senitartekoak aurkitu ezin izan dituztenak.

Horri dagokionez, Nafarroako Parlamentuak deklaratu du pertsona ororen eskubidea dela bere senitarteko desagertuak aurkitzea. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako gaitortzeko administrazio publikoek laguntza eman eta elkarrekin koordinatu eta lankidetzan jardun behar dute, biktimak hobitik ateratzea, identifikatzea eta lurperatzea errazteko; horretarako, beharrezkoa da erakunde publiko guztiek laguntzea biktimen senitartekoei ikerlanean, artxibo-miaketan, dokumentazioa eskuratzeko, baimenak eskatzen eta gainerako izapideak egiteko prozesu zailen, gorpuzkiak modu azkar eta eraginkorrean aurkitu eta hobitik atera ahal izan daitezkeen.

Ondorio horietarako, Nafarroako Parlamentuak oso balorazio positiboa egiten du “Hobi-ateratzearako protokoloa” onetsi izanaz, behar den segurtasun juridikoa ematen duelako biktimen hobi-ateratzeetan, eta “Hilobi-mapa” izenekoa onetsi izanaz ere, zeinak tresna bizi eta etengabe gaurkotua izan behar baitu.

Halaber, biktimen senitartekoei eman beharreko laguntzari begira, komeni da Nafarroako Gobernuaren erreferentziako administrazio-unitate bat egotea, zeinetara jo ahalko bailukete beren senitartekoen hobi-ateratzearekin zerikusia duen edo zertarako, edo, besterik gabe, biktimen beharriak artatzeko, laguntza-bulego gisa.

HIRUGARRENA.- Foru Komunitatearen esparruan, gerra zibilaren ondorioak pairatu zituztenen ordain moralerako osagai garrantzitsu bat izan da dokumentu-funts bat sortzea, izaera zientifikokoa, gerra zibila alderdi guztietatik aztertzea ahalbidetzeko. Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako

Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmen baten bidez sortu zen funtsa, 2009an. Parlamentu honek, beraz, hitzarmena indarrean mantentzeko borondatea duela adierazten du, baliabide egokiz hornituta, jada hasitako lanak behar bezala bukatu ahal izan daitezzen eta, hartara, hezkuntza sisteman sartu ahal izan dadin gerra zibilari buruzko guztiaren tratamendua, beharrezkoa den objektibotasunez, egia eta justizia oinarri, balio etikoak eta giza eskubideen defentsa sustatuz, biktimek pairatutako errepresio ekonomikoa aztertuz orobat, gertakari horiek gizartean izandako inpaktu emozional eta soziologikoari buruzko azterlanak eginez, baita emakumeek pairatutako errepresioari buruzkoak ere, gisa bereko gatazkei buruzko nazioarteko azterlanak eginez, gaiari buruzko azterlanak eta liburuak argitaratuz eta dibulgatuz, eta abar.

LAUGARRENA.- Nafarroako Parlamentuak egiaztatu du Sartagudako Oroimenaren Parkea izenekoia –persona eta elkarte ugariaren ekarpenekin ordaindua; besteak beste, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarte eta Sartagudako Alargunen Herria Elkarte, alderdi politikoak, sindikatuak eta erakundeak, zeinen artean baitaude hainbat udal, bereziki Sartagudako Udala, Nafarroako Gobernu eta Nafarroako Parlamentua bera– zeregin sinboliko bat edukitzera ailegatu dela 36ko Nafarroako biktimek oroitutako eta omentzeaz denaz bezainbatean, erreferente modura ageri dena biktimek ordain moralari dagokionez, Sartagudako herriaren mugez gaindi.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak adierazten du komenigarria dela elkarte sustatzaileak, Sartagudako Udala eta Nafarroako Gobernuak akordio batera heltzea Sartagudako Oroimenaren Parkea behar bezala mantentzeko eta garatzeko eta seinaleztatzeko, bai eta egoki irizitako jarduerak egiteko biktimek oroitutako eta ordainez, eta bereziki, alargunen oroitutako eta ordainez, adore eta kemen berezia garatu behar izan zutelako beren bizitzak nahiz seme-alabenak aurrera ateratzeko, aparteko zailtasun eta injustiziako testuinguru batean.

Tratamendu egokia eman beharko zaie, orobat, Nafarroan 36ko biktimekin lotura berezia duten tokiei –bertan izandako gertakariaren garrantziarengatik nahiz bertan hil edo lurperatutako pertsonen oroimena zaintzearen garrantziarengatik–; adibidez, Ezkabako gotorlekua, bortxazko lanak egiten ziren tokiak, hilobiak edo lurperatze-tokiak, monumentuak eta biktimek omenezko plakak edo “botilak hilerria” izenarekin ezagutzen den tokia bera. Komeni da, halaber, Iruñeko hilerrian gune bat

atundu ahal izatea identifikatu gabeko biktimek lurperatzeko, zor zaien duintasunarekin.

BOSGARRENA.- Nafarroako Parlamentuak berresten du erabat indarrean dagoela eta aplikatu beharrezkoa dela Nafarroako Sinboloen buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeko xedapen iragankor bakarra, zeinean xedatzen baita Francoren erregimenaren sinbologia kendu eta ordeztu beharra dagoela, oinarri hartuta sinboloek ez dutela inolaz ere balio behar enfrentamendurako, laidorako edo irain egiteko, ezpada elkartzeko eta berradiskidetzeko.

Hortaz, Parlamentuak berresten du 36ko biktimek oroimenerako iraingarria izan litekeen sinboloen bat oraindik ere egonen balitz, kendu egin behar dela.

SEIGARRENA.- Nafarroako Aurrekontu Orokorretan urtero jasoko da kontusail bat, ondorio hauen edukia egiazki betetzeko diru-hornidura egokia izan dena.

Iruñean, 2013ko martxoaren 15ean

Foru parlamentariak: Javier Caballero Martínez, Pedro Rascón Macías, Víctor Rubio Martínez, Xabier Lasa Gorraiz, Eloy Villanueva Cruz eta Txema Mauleón Etxeberria

1. ERANSKINA

Izquierda-Ezkerra eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen boto partikularra

Behean sinatzen dugunok nabarmendu nahi ditugu lan-taldean aho batez lortutako akordio garrantzitsuak, nahiz eta, gure ustez, ondokoak ere jaso beharko ziren bukaerako txostenean:

– Ezkabako Gotorlekua: hari buruzko alderdi guztiak aintzat hartzea: hilerria, hilobiak, titulartasuna eta abar. Orobat eskatzen dugu konpon daitezkeen obra batzuek eragindako kalteak, zeinen ondorioz desagertu ahal izan ziren bertan gertatutako gogorarazteko zenbait elementu garrantzitsu.

– 36ko biktimek eta haien senitartekoen ordaina eta justizia.

Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak interesa adierazi du Espainian frankismoaren krimenak ikertzea babes dadin, Argentinako epaile batek atzerrian abiarazitakoaren gisa berean. Halaber, frankismoko epaiketak baliogabetzea eta gertatutakoari buruzko Egiaren Batzorde bat sortzea eskatu da.

– Oroimen Historikoaren Nafarroako Foru Legea

Azkenik, aipatu beharra dago elkarteetako batek nabarmendu duela azaldutako auzi horiek guztiak foru lege batean jaso beharko liratekeela, eskubide aitortu bihur daitezzen. Halaber, oroimen historikoaren arloko jarduketei foru lege baten maila emateak berak badu, berez, 36ko biktimen-tzako ordain eta aitortza osagai oso garrantzitsu bat, Nafarroako erakundeek egindako beste jarduketa eta ekintza batzuk osatzeko balioko lukeena.

Iruñean, 2013ko martxoaren 15ean

Foru parlamentariak: Txema Mauleón Echeverría eta Pedro Rascón Macías

II. ERANSKINA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen boto partikularra

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldetik balioa eman nahi diogu lan-talde honek parlamentu-talde guztien aldeko botoa izatea lortu izanari.

Gure ustez, adostasun hau mugarri gisa azpimarratu beharra dago, 36ko uztailleko kolpe militarren eta ondorengo erregimen frankistaren ondorioak pairatu behar izan zituztenen aintzatespen instituzionalaren prozesuan.

Lan-taldea bera foru lege proposamen baten ondorioz sortu zenez, gustatuko zitzaigun egindako lanaren ostean akordio bat lortzea, prozesu bati ekin eta horren amaieran foru lege bat taxutzeko, 36ko uztailleko kolpe militarra eta ondorengo erregimen frankista pairatu zuten biktimen aintzatespena egiteari buruzkoa.

Hori dela-eta, boto partikular honen bidez foru lege baten aldeko jarrera agertzen dugu, lan-talde honek adierazi nahi duena jaso eta bermatuko duena, eta ez dadin asmo-adierazpen hutsa izatera mugatu.

Iruña, ostirala, 2013ko martxoaren 15a

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

III. ERANSKINA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldearen boto partikularra

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak bere boto partikularra aurkeztu du, 36ko gerrako biktimei buruzko lan-taldearen bilkurak bukatu eta gero:

1) Geure egiten ditugu lan-taldeak onetsitako ondorioak. Gutxienezkotzat jotzen dugu akordio hori, eta Parlamentu honetan ordezkaturako indar politiko guztien arteko adostasunaren mesedetan soilik onartzen dugu. Baina, gutxienezkoa delako hain zuzen ere, emaitza eskasa eta zehaztugabea iruditzen zaigu. Eta horregatik aurkezten dugu boto partikular hau.

2) Gure ustez, auzi honi buruzko lege berariazko bat behar da, lan-talde honen aho bateko adostasunaren mesedetan albo batera utzitako alderdi guztiak zabaldu eta zehaztuko dituen.

3) Jorratutako gaien artean, gutxiegi zehaztutako zenbait azpimarratu nahi ditugu:

- Ezkabako gotorlekua dela-eta, Nafarroako Gobernuak horren jabetza eskatzea Espainiako Gobernuari, eta gotorlekuaren behin betiko erabilerara eta balizko jarduketak planifikatzeko talde bat eratzea. Guretzat, horixe da, eta ez besterik, erreferentzia-lekua, Nafarroan armada frankistaren esku milaka eta milaka pertsonak jasandako errepresio tragikoari dagokionez, eta bidezkoa da horien oroitzapena leku horretan berean errespeta-tzea.

- Gure ustez, gerran eta gerraosteko urteetan gertatutakoari buruzko ikerketa-ildo gehiago ireki beharko lirateke; besteak beste, ondasunak konfiskatzeari, frankismoak errepresaliatutakoaren emazteen eta alargunen aurkako errepresio sistematiko eta programatuari nahiz Nafarroako herri askotan horiekin gertatutakoari dagokionez.

Iruña, 2013ko martxoaren 15a

Foru parlamentaria: Xabier Lasa Gorraiz